

- **Zein da zure bezeroa?**

Tolosako komertzioa da gure bezeroa, denda txikiak, laguntza behar dute COVID-19arekin jendeak beldurra duelako dendetan sartzea eta erostea, horren ondorioz geroz eta gehiago erosten denez internetaren bidez bezeroak galtzen ari dira herri txikietakoko komertzioek, eta honela desagertu arte, beraz horregatik beraien saltzeko modua edo era aldatu behar dute gaur egungoetara egokituz.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Komertzio txikiak dira, herrian dauden betiko dendak dira, geroz eta bezero gutxiago dituzte, beraien bezeroak internetaren bidez erosten hasi direlako beste dendetara non zerbitzu hori eskaintzen duten. Horregatik beraiek internetaren bidez saltzeko beharren ikusten ari dira, baina txikiak direnez beraien web-guneak ez lukete arrakastarik izango eta berdin jarraituko lukete, horregatik aukera hori eskaintzen diegu guk. Komertzio txiki horiek web-gunean partekatuko lukete eta bezeroak beste denda batzuk ezagutzera iritsiko ziren. Era honetan ez lituzkete betidaneko bezeroak kontserbatuko baizik eta bezero berriak ere irabazteko aukera izango lukete.

